

ABERRI EGUNA 2023 APIRILAK 9

GURE IZAERA.
GURE ABERRIA.

Aurrera egiteko contigo
eaj pnv

**Iñigo Urkullu Lehendakaria**
**Aberri Eguna 2023**
**2023-04-09**

## Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

## El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Aberkideok, abertzaleok, egun on! Iritsi da gure eguna. ABERRI EGUNA dugu! Egia da. Urteko 365 egunetan zehar gara euskotar. Bistakoa da hori eta, aukera dugun bakoitzean, erakusten dugu. Euskadin, edo munduko beste edozein herritan gaudela ere! EUSKALDUN EUSKOTARRAK gara eta harrotasunez aldarrikatzen dugu! Gure eguna izatea, hala ere, ezinbestekoa da. Bakoitzak bere ohiturekin. Bakoitzak bere oroimenekin. Hori bai, beti ospatzeko gogoarekin! Beti aldarrikatzeko grinarekin!

Abertzale guztiok dugu egun berezi honetan ezaugarri bera amankomunean. Momenturen batean ikurrina eskuetan hartu eta gure barrenean deskribatzea zaila den zerbait sentitzen dugu. Norberak bakardadean egiten du, baina abertzale guztiok gauza bera sentitzen dugula jakinda. Sentimendua barru-barrutik ateratzen zaigu. Momentu horietan, ikurriña eskuetan, bakardadean, gure aberria maitatzen erakutsi zigun pertsona etorriko zaigu burura. Ama, aita, osaba-izeko, aitite-amama, senitarteko, lagun edo erreferente duguna. Edo denak batera. Gaur, esker ona helarazi nahi diet pertsona horiei guztiei. Transmisio hori bermatu duten abertzale guztiei. Eskerrik asko herri hau maitatzen erakusteagatik. Eskerrik asko munduan nire etxea zein den argi adierazteagatik. Eskerrik asko bakarrik ez nagoela, ez gaudela, esateagatik Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan, Lapurdin, Behe-Nafarroan edo Zuberoan. Iparraldean zein Hegoaldean, Euskadin zein munduan. EUSKADI-EUSKAL HERRIA osoan… Hau da gure IZAERA… Hau da gure ABERRIA… BIHOTZEZ, ESKERRIK ASKO!

Orain guri dagokigu jaso dugun legatua hurrengoei ere transmititzea. Aberriarekiko maitasuna belaunaldi berrietan ere zabaltzea, indartzea, sakontzea... Aberri transmisio horretan ere ASMATU behar dugu… Gure eginkizuna da… Gure betebeharra da... Jaso duguna pasio berarekin emango diegu gure oinordekoei. Gure aita-amen, gure aitite-amamen etxea

beraiena ere izango delako. Etorkizuneko HERRIA beraiena delako! Norberaren Aberria maitatzen ez duenak nekez maitatuko du beste edozer… Ezinbesteko abiapuntua da…. Noraezean ez ibiltzeko iparorratza... Munduko biztanleak ere bagara… baina gure Aberria zein den argi izanda! GU EUSKALDUN EUSKOTARRAK GARA! EUSKADI DA GURE ABERRIA!

Mundu osoan, baita Euskadin ere, urte zailak bizi izan ditugu. Tamalez, krisiak bata bestearen atzetik etorri zaizkigu. Gure etxeko atean kolpatu zaizkigu: Ukrainako Gerra, Krisi energetikoa, Errefuxiatuena, Inflazioa, Brexit-a, Finantza krisia… baina onik atera gara! Aurrera egiten lortu dugu… Badakizue zergatik? Herri honentzako bide-orria dugulako! Herri honentzako eredu propioa dugulako! BIDE ORRIA DUGU… EREDUA DUGU… EUSKADIREN GARAI BERRIA ERAIKITZEN ARI GARA!

Como hicieron quienes nos precedieron, hemos tenido que responder a todas las crisis que se nos han ido presentando… Hemos trabajado juntas y juntos… Compartido Estrategia, prioridades y retos… Codo a codo con las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos… Con cercanía con todos los agentes sociales… Con el apoyo de todos nuestros cargos electos y ejecutivos, en cada municipio, Territorio, Euskadi-Euskal Herria, Madrid y Bruselas… Estamos consiguiendo CRECER:

- El Producto Interior Bruto de Euskadi ha aumentado un 30% en diez años…

- Hemos superado, por primera vez, los 32.000 millones de euros de exportaciones…

- Nos acercamos al millón de personas afiliadas a la Seguridad Social, el máximo en nuestra historia…

Esta es la carta de presentación para seguir construyendo un nuevo tiempo para Euskadi… Todo ello en una sociedad presente en la que en Euskadi hemos de velar por el envejecimiento activo y una salud de vanguardia personalizada y por un Pacto social de cuidados. También por un Pacto por los derechos de la infancia, un Pacto con y por la juventud, un Pacto estratégico de Servicios Sociales… Son también clave en nuestro compromiso con Euskadi. Una Euskadi social a la que hemos de seguir aportando identidad. IDENTIDAD SOCIAL. Esto es, empatía intergeneracional… Reciprocidad y colaboración entre generaciones… La hoja de ruta no se puede escribir con miradas distintas por edades, sino con una perspectiva compartida… Una Euskadi que dentro de quince años poco tendrá que ver con la actual. La generación siguiente a la nuestra recibirá nuestro legado y hará crecer Euskadi. Es nuestra obligación dejar el mejor País posible a la siguiente generación… Trabajamos todos los días para ello... Con la mejor de nuestras intenciones… Con toda la fuerza de la colaboración y la cooperación… Porque el





futuro de Euskadi ha de ser joven... Nuestro objetivo es consolidar una base sobre la que las y los jóvenes puedan crecer y mejorar.

-A través de un Pacto Educativo que ofrezca una educación puntera. Una Educación de vanguardia que les ayude a estar preparadas y preparados para el futuro. Con una Ley de Educación, una Ley de Formación Profesional y su Plan Estratégico, así como el Plan del Sistema Universitario Vasco…

-A través de políticas de apoyo a la emancipación. Con ayudas específicas para jóvenes que contribuirán a que puedan emprender antes su propio camino. Teniendo en cuenta la necesidad de estabilidad laboral, posibilidad de conciliación, salarios acordes a la formación, sin brecha de género.

- El plan de choque de empleo juvenil, las ayudas por hija o hijo, las deducciones fiscales, la gratuidad de la etapa 0-2 años de las Haur Eskolak, las ayudas a la vivienda, las políticas de conciliación familiar son cimientos sólidos para que la juventud tenga más facilidades para desarrollar su propio proyecto de vida…

ES NUESTRO COMPROMISO PARA EL FUTURO DE EUSKADI Y SU IDENTIDAD SOCIAL.

GURE IZAERA

Herri eta kultura baten ezaugarria hizkuntza da. Euskararen bilakaera ezagutu dugu eta emaitzak onak dira… Aurrera egiten ari gara eta aurrera egiten jarraitzeko borondatea eta nahia dugu… Euskara bizirik dago! Bidea luzea izan da. Belaunaldi bakoitzari suertatu zaigu eginkizun bat. Gerra garaiko belaunaldiari egokitu zitzaion, diktadurapean, euskara bizirik mantentzea eta oinarrizko urratsak ematea: ikastola eta gaueskolak sortzea edota hizkuntza-eredu estandarra arautzea. Gure aurreko belaunaldiari egokitu zitzaion Autogobernua berreskuratuta, euskararen ofizialtasuna bermatzea eta hizkuntza-eskubideak finkatzea. Gure belaunaldiari egokitu zaio hezkuntza sisteman euskara bideratzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko erabakiak hartzea, edota helduen euskalduntzeari bultzada ematea. Denon artean lortzen ari gara euskaraz bizitzeko bideak ireki, mantendu eta handitzea! Gizarteak aspaldi egin zuen elebitasunaren aldeko apustua… Azken 30 urte hauetan, zazpi lurraldeetan, 280 mila euskal hiztun gehiago irabazi ditugu. Gazteen artean, 16 eta 24 adin tartean, hiztunak bikoiztu egin dira, zazpi lurraldeetan… Euskararen erabilerak ere gora egin du

etengabe… Zenbait sektorek ahaleginak egiten dituzte euskararen normalizazioa zalantzan jartzeko. Hor ditugu "gaztelaniaren defendatzaileak". Hiztunen kopuruak gora egin duela, bai, baina erabilerak ez duela neurri berean gora egin esanez. Nola egingo du neurri berean gora? Ezinezkoa da! Mundu guztian hizkuntza bat ez dute aurkituko bide hori hartzen duenik. OSO ZAILA da hizkuntza ohiturak aldatzea. Baina posiblea da. Egin daiteke eta egiten ari gara. Pixkanaka. Aurrera goaz. Herriaren atxikimenduarekin eta babesarekin. Segi dezagun euskararen alde egiten. Adostasun zabalekin eta herriaren laguntzarekin. HORI BAITA GURE ARBASOEK UTZI DIGUTEN ALTXORRA. HORI BAITA MUNDUAN EZBERDINTZEN GAITUENA. EUSKALDUNAK GARA!

Identidad basada en nuestro "Autogobierno" es una idea nuclear en nuestra historia, en nuestro presente y en nuestro futuro. No sólo es una idea. Es una realidad. Una realidad que avanza, que nos representa y proyecta nuestra determinación. La experiencia del camino emprendido hace casi nueve décadas, mantenido en el exilio y retomado en la democracia nos muestra el camino a seguir en estos tiempos de gran dificultad… Trabajar paso a paso y trabajar en todos los frentes. Nuestro sistema de autogobierno es expresión clara de nuestra identidad como Pueblo. El Autogobierno refleja una manera de preservar la identidad, avanzar en el bienestar y la convivencia, y construir una comunidad política diferenciada y singular. El Autogobierno es el instrumento de nuestro SER, de nuestro VIVIR, y de nuestro CONVIVIR. Defender, proteger, desarrollar, renovar, avanzar y proyectarlo es nuestro COMPROMISO. En la gestión de los tiempos políticos en cada momento, ni olvidamos ni orillamos este punto de partida. Vamos a seguir actualizando y renovando nuestro marco de Autogobierno en Euskadi y fuera de Euskadi. Estamos actuando en todos los ámbitos internacionales… En Naciones Unidas, con la Agenda 2030 y su nueva sede mundial en Euskadi… En el marco de la Unión Europea:

-Participamos en 72 redes y lideramos la Comisión Arco Atlántico y la Comunidad de Trabajo de los Pirineos.

- Codo con codo con Nafarroa e Iparralde, también en la Euro-Región.
- Liderando, en cinco países, una propuesta de Macro-región Atlántica que mantenga nuestra centralidad en la agenda europea…
- Impulsando la participación en las instituciones europeas con dieciséis regiones europeas con capacidad legislativa, reivindicando la gobernanza multinivel basada en el principio de subsidiaridad...



ABERRI EGUNA 2023 APIRILAK 9

GURE IZAERA.
GURE ABERRIA.

Aurrera egiteko contigo
eaj pnv

Vamos a seguir avanzando para un nuevo tiempo para Euskadi. VAMOS A SEGUIR CONSTRUYENDO UN NUEVO TIEMPO PARA EUSKADI CON SU IDENTIDAD.

Somos un país. Tenemos una identidad propia abierta al mundo que queremos desarrollar dentro de Europa. Sumando para ello a diferentes agentes. Todas y todos por un mismo sueño. Con Navarra, con Iparralde… Tejiendo un lugar inclusivo, abierto y que tenga por bandera el respeto al diferente. Una bandera que nos une. Una bandera que suma. Una bandera que ABRAZA.

Somos un país… Pequeño en tamaño, con un enorme potencial para hacer frente a los retos que se nos pongan por delante… Siempre desde la unidad, siempre desde el consenso… Siempre desde el respeto… Defendiendo un proyecto compartido. Euskadi está preparada para los retos presentes y futuros. Lo estamos haciendo en todos los órdenes de acción política institucional… Gobierno Vasco… Diputaciones Forales… Ayuntamientos… Todas las instituciones defendiendo un proyecto de País compartido. Estamos comprometidos con el deseo de prosperar aunando sentimiento de pertenencia… Teniendo claro cuál es nuestro lugar en el mundo, para tratar de que sea más justo socialmente e integrador desde el respeto con nuestro SER. Herederos de una historia, somos eslabón abierto de una cadena que ha de ser larga.

Euskaldunak eta EUSKOTARRAK gara eta oso harro esaten diogu munduari hemen gaudela eta geldiezinak garela. Elkar ulertuz, elkar errespetatuz, elkar maitatuz. Altxa dezagun gure ikurriña zeruraino. Egin dezagun aukera dugun bakoitzean. Uztailean eskaparate paregabea izango dugu, ikurriñaren bidez, munduari NOR eta ZER garen eta IZAN nahi dugun erakusteko… ERAKUTSI DEZAGUN NOR GAREN ETA ZER NAHI DUGUN… ATERA DITZAGUN GURE IKURRIÑAK TOURRARI ONGI ETORRIA EMATEKO... EMAN DIEZAIOGUN HAUSPOA GURE ABERRIARI... EUSKOTARRAK GARA... GORA EUZKO ALDERDI JELTZALEA! GORA EUSKADI ASKATUTA!